

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko otsailak 14 • 1343 zenbakia

EIBARTIK ITSASOARI BEGIRA

10 Egun Kia.

Otsailaren 13tik 24ra.



Naia Car

Apalaitegi 1, EIBAR
943 70 70 33
gruponaiacar.com

Kontsultatu promozioareen baldintzak eta ezaugarriak www.kia.com webgunean. Penintsulako, Balearretako, Ceutako, Melillako eta Andorrako kontzesionarioaren sarean du balioa eskaintza honek.



ARRATE HOMES • EIBAR

EZ PENTSA

BIZI EZAZU!



ZATOZ PISU PILOTUA IKUSTERA

Obra berriko etxebizitzak:
Gimnasioa | Gourmet aretoa
Garajea | Trastelekua



900 11 00 22 • neinorhomes.com

San Andres Pasealekua, 5

SARRERA EGO-GAINETIK

COVIRAN
supermerkatua

ORDUTEGIA

**ASTELEHENETIK
OSTIRALERA**

09:00/21:30

ZAPATUETAN


09:30/22:00

**DOMEKA ETA
JAI-EGUNETAN**

10:00/21:00

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eu



@etakitto



Armagintzaren Museoak 'Eibarko Itsas Abentura' erakusketa jasotzen du martxoaren 30era arte. Gure herriak itsasoarekin izan duen lotura erakusten da bertan eta, hainbat piezaz gain, herriko marinelen inguruko istorioak ere kontatuko dira.

eta kitto!
euskarako elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia eta

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Hortik esanak



Oso latza izan da

Atzo, otsailak 13, Euskal Herrian torturaren aurkako eguna izan zen. 1981eko data horretan Joseba Arregi euskal militantea hil zen komisarian pairatutako torturen ondorioz. "Oso latza izan da" izan zen erabili zuen esaldia komisaldegian jasandakoaz. Zoritxarrez, Joseba Arregi ez da izan torturatua izan den pertsona bakarra. Zenbaki ofizialen arabera 5.000 lagun baino gehiago torturatua izan da Euskal Herrian.

2016an Gasteizko Gobernuak plazaraturiko informe batean 4.009 tortura kasu onartzen zituen. Tortura kasu gehienen arduradunak polizia nazionala eta goardia zibilak izan arren, 310 tortura kasutan Ertzaintza da arduraduna. 2023an, berriz, Nafar Gobernuak 1.068 tortura kasu onartu zituen.

Eibarren 2012an eginiko lanketan 42 tortura kasu jaso genituen, kasu bakoitza bere testigantzarekin. Zaila da oso torturaz hitz egitea. Ariketa horrek eskatzen du buruan eszena ezatseginak irudikatzea, min fisiko eta psikikoak gogoraraztea, eta hori ez da batere erraza.

Nafar Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak tortura kasuak onartu dituzte, baina urteak joan urteak etorri torturatuak izan garenok ez dugu aitortzarik jaso, ezta erreparaziorik ere. Bide horretan txalagarria da Nafarroan 2022an nafar torturatuen sarea sortu izana. Sare horrek bi helburu ditu: batetik, aitortza eta erreparazioa lortzea torturatuak izan direnentzat eta, bestetik, torturaren arduradunak ardurak har ditzatela eskatzea. Bihar, otsailak 15, nafar torturatuaren sarea Donostiako Kurtsalean izango den ekitaldian Euskal Herriko Torturatuen Sarea bilakatuko da, torturatu guztien aitortza eta erreparazioa helburu. Hori dela eta, Eibarko Sortuk dei egiten du eibartar torturatuak bihar, larunbata, Donostiara joan daitezen.

Eibarko Sortu

Espainiatik gurera etorritako %31k omen du euskara ikasteko interesa; eta beste erbesteetatik etorritako arteen, ostera, %49,8koa omen da euskararen aldeko interesa agertu dutenen ehuneko. Diotenez, beraiek Espainian bizi direla eta ez daukatela euskara ikasi beharrik. Horrek mintzen bagaitu ere, datuak ez dira batere txarrak: Espainiatik datozenen heren batek eta beste erbesteetatik datozenen erdiak euskara ikasteko interesa izatea oso datu positiboa da. Guk euskaraz egiten duguna baino askoz kopuru handiagoa baita.

ANA URKIZA, Eusko Ikaskuntzako presidentea

Ogiak batez ere karbohidratoak ditu, elikagai energetikoa da. Horrez gain, azala erabiltzearen garrantzia, integrala izatearen garrantzia aipatuko nuke. Azken batean, azal horretan aurkitzen dira bitamina eta mineral asko. Ondo fermentatutako ogi batean horien aprobetxamendua askoz ere hobe da, eta gure hesteetako mikroflora indartzen du.

AIZPEA IZAGIRRE, Sosolako okina

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PELLA → Ahiez eginiko orea arrautzetan pasatu eta frijitu. Tostada. Gaztelera 'torrada'. "Zatzuk, Zuloagan, Eibarko ehitarixegaz pella jaterakuan: -Banajekixan Eibarren gauza ederrak egiten zittuena, baiña holako legatz prijidurik ez juat iñoiz jan nik!"

PELAJE → Zazpikia, petrala, inuzentea. Gaztelera 'impertinente'. "Ez zaitetz izan pendejua".

1953

Ziklo-krosa Elgeta kalen

Ziklo-kros proba batean egindako argazki honek agerian lagatzen du lehenagoko kirolariek ere ondo sufrizten zutela. Txirrindularia Elgeta kaleko eskaileretan behera doa. Ezkerreko aldean ikusten diren pertsianak hor egon zen Murua harategikoak dira.

FOTO PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 14
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 16
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 17
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 18
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 19
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 20
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Tomasa Arrieta Zabaleta.**
92 urte. 2025-02-03.
- **Pablo Otero Calles.**
57 urte. 2025-02-04.
- **Rosa Limia Ledo.**
94 urte. 2025-02-06.
- **Begoña Sanchez Flores.**
85 urte. 2025-02-07.
- **Floren Garcia San Martin.**
90 urte. 2025-02-08.



Haur sahararrak udan etorri ahal izateko familiak behar dira

Saharako Euskadiko Ordezkaritza, *Oporrak Bakean* programa laguntzen duten udalak, eta ekimen hori posible egiten duten elkarte eta harrera-familietak ordezkarriak Donostiako Aiete Jauregian bildu dira orain dela egun batzuk, 2025eko *Oporrak Bakean* programaren berri emateko. Aurtengo kanpainaren goiburua *Esperantzari leiho bat* da. Izan ere, "herri ororen esperantza haurrak direla esaten da eta, gu guztion ahaleginari esker, haur horiei Euskal Herrian udako egonaldia eskainiko diegu, osasunaren eta bizipozaren leihoa zabalduz", azaldu dute. Matxoaren 15era arte egongo da "Oporrak Bakean" programan izena emateko epea irekita. Gogoratu dutenez, 15 urteotan 4.597 haur hartzeko gai izan gara Euskal Autonomi Erkidegoan. 2022an 153 haur saharar etorri ziren, 2023an 183 haur eta 2024ko udan 188 haur izan ziren. Arduradunen berbetan, "aurten

ahal den eta ume gehienei eskaini nahi diegu aukera hau eta honek harrera-familia gehiago lortzeko ahaleginetan murgiltzen gaitu. Izan familietara izan aterpetxeetara, ekin diezaiozun lanari anbizioz eta determinazioz, jakinda lortzen dugun harrera-familia bakoitza izugarri garrantzitsua dela ume hauentzat". Informazio gehiago nahi izanez gero, 696 01 47 86 telefono zenbakira deitu daiteke.

2025eko udan harrera-familiez gain, aurten lau aterpetxe ere izango dira, hiru Bizkaian eta berri bat Gipuzkoan. Familien garrantziaz gain, aterpetxeek elkar zaintza komunitariotik programa horri egiten dioten ekarpena ere azpimarratu nahi izan dute: "Euskal herritar orori deia luzatzen diogu elkartasun ariketa komunitario eder honetan parte hartu dezan. Deia luzatzen dugu gure etxeetan uztailean eta abuztuan ume saharar bat etxean har dezagun".



Sorginbason zuhaitzak landatzera joateko gonbidapen zabala

Eibarko Baso Biziak-ek beste zuhaitz-landaketa bat egingo du Sorginbason, eta parte-hartzera gonbidatu nahi dituzte herritar guztiak. Landaketa domekan egingo dute eta, parte hartzerantz animatuz gero, gaur da izena emateko azken eguna: horretarako mezua idatzi behar da eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera, izen-abizena, adina eta telefonoa zehaztuz. Landaketa egitera joateko hitzordua 09:30ean ipini dute, Unbe goikaldean.



Sakuneko pasealekua itxita egongo da datozen asteetan, lanengatik

Aurreko astelehenean aparkalekua handitzeko lanak hasi zirela eta, horren eraginez, Jardiñeta auzoko Sakun pasealekua itxita egongo da datozen asteetan, "belar-sastrakak kentzeko eta mozteko lanak egin arte, gutxienez", eta harri-lubeta egin bitartean (indusketa barne).



Mertxe Arriola da Ikasten elkarteko presidente berria

Atzo egin zuen urteko batzarra Ikasten elkarteak eta, bide batez presidente berria izendatu zuten bileran. Horrela, bost urtez presidentea izan den Patxi Mutiloak Mertxe Arriolari laga dio tokia. Mutiloaren arabera, Ikastenek bi erronka nagusi dauzka orain: “Gizon gehiago gerturatzea, eta bulego propioak izatea”. Mertxe Arriolak “ilusio handiz” helduko die horiei, eta Debabarreneko beste herrietatik jende gehiago etortzea nahi dutela ere esan du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilu Ibiltaria Eibarren bildu da

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua Eibarren bildu da aste honetan. Legegintzaldi honetan egiten ari diren saio ibiltarien esparruan antolatu zen bilera, “lurraldeko udalerrien beharrak, erronkak eta proiektuak bertatik bertara ezagutzeko eta horiekiko lankidetzaz estutzen jarraitzeko, baita herritarrei erakundearen jardura hurbiltzeko ere”. Foru diputatuak, Eider Mendoza diputatu nagusiarekin batera, asteroko ohiko

topaketa egin zuten martitzenean Armeria Eskolan. Horrela, lurralde osoarekin lotutako zenbait neurri eta erabaki onartzeaz gain, hurbiletik ezagutu ahal izan dute Lanbide Heziketako ikastetxe horren lana, “aitzindaria eta erreferentea baita Gipuzkoan eta Euskadin”. Kontseilua egin aurretik, Eider Mendozak eta Jon Iraola Eibarko alkateak lan bilera egin zuten, hirian lantzen ari diren erronka eta proiektu nagusiak bertatik bertara ezagutzeko.





Begoña Etxaide Zenarruzabeitia

1. URTEURRENA
2024/02/16

**“AMA:
Gure bihotzetan
zaude betirako”**

UNANUE TA ETXAIDETAR
FAMILIAK



Jose Luis Prieto “Txelu”

4. URTEURRENA
2021/02/19

**Maite
zaitugu**

- IDOIA, AITOR ETA IGOR -





Merkal Oinetakoak enpresako beharginek zortzi hilabete daramatzate greban

Iazko abenduan bete zituzten 200 greba-egun Gipuzkoako Merkale Calzados-eko langileek, hitzarmen kolektibo duin baten alde: “Aurre-rapauso batzuk lortu arren, gatazkak geldirik jarraitzen du, enpresak proposamen onargarririk ez duelako egin”, adierazi dute ELA sindikatutik. Gauzak horrela, greba mugagabearekin jarraitzea erabaki dute. Azaroaren 15ean bildu ziren azkenengo enpresarekin, eta ur-tarrilaren amaieran beharginek protesta egin zuten Donostian, *Mer-*

*kal Calzados*eko langileak greban. *Kaleratzerik ez!* lelopean. Baina, zortzi hilabeteko greba eta gero, Donostiako denda itxi du enpresak. Eibarren ere denda daukate, eta hemen ere aritu dira protestan: apirilean hasi ziren, barixaku eta zapatuetako grebekin, eta uztailaz geroztik Ipuruako denda guztiz itxita dago. Orain gutxira arte enpresak ez du arazoa konpontzeko borondaterik erakutsi, “baina une honetan negoziaketak aurrera doazela ematen du”.

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak doako tailerrak antolatatu ditu gaixo eta senideentzat

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak hiru jarduera antolatu ditu, eskualdeko biztanleentzako. Eibarren eskainiko dira, otsailean hasi eta ekainera bitartean: dolu-taldea (otsailaren 20tik ekainaren 19ra, 12:00etatik 13:30era, elkartearen lokalean), senideentzat; arnasketa tailerra, paziente onkologikoentzat (otsailaren 26tik maiatzaren 14ra, 11:00etatik 12:00etara, Estaziño kaleko Kenko zentroan); eta *Nola hitz egin minbizi*az adingabeekin hitzaldia (apirilak 3). Senideentzat pentsatutako hitzaldia Ardantza kalean elkarteak duen lokalean izango da, 18:00etatik 19:30era. Doako jarduerak dira, eta hiruretarako izen-ematea zabalik dago (ez da beharrezkoa elkarte bazkidea izatea parte hartu ahal izateko). Izena emateko, 943 45 77 22 telefonora deitu edo gipuzkoa@contraelcancer.es helbidera mezua bidali daiteke. Informazio gehiago: www.contraelcancer.es/eu/talleres.



Egazelain eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzak ikusteko bisita

Denis Itxaso Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua Eibarren egon da, Jon Iraola alkatearekin batera Egazelain auzoan (Fray Martin Mallea kalea, 8) Visesa eraikitzen ari den alokairuko babes ofizialeko 36 etxebizitzaren sustapena bisitatzeko. Proiektu horrek 4,83 milioi euroko aurrekontua du, eta 2026. urtearen erdialderako amaituta egotea aurreikusten da. Proiektua

Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza publikoen eraikuntzan mugarri bat da, energia-efizientzia hobetzen duen fatxada industrializatua baitu, eta, horri esker, epeak hobeto kontrolatuko dira, eta ingurumen-inpaktua murriztuko da. Miguel de los Toyos Etxebizitzako sailburuordea eta Carlos Quindos Visesako zuzendari nagusia ere han egon ziren, lanak bertatik bertara ikusten.



'Euskeraz primeran!' Neguko Merkealdien Azokan egongo da

Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) Udalarekin elkarlanean antolatutako neguko aukeren azoka datorren astean egingo da. Oraingo honetan 26 establezimenduk hartuko dute parte: 18 Errebal Plazan egongo dira eta besteak beraien saltokietatik arituko dira. Martitzen, eguazten eta eguenean egongo da zabalik *factoring*-a, 10:00etatik 20:00etara. Inaugurazioa martitzenean izango da, 09:45ean, eta han egongo dira

herriko agintariak eta sektoreko ordezkariek, urtero lez.

Arnoren musikarekin girotutako pintxo-potea

Era berean, ekimenarekin bat egin duten dendetan zerbait erostean, ambulatorio parean dagoen karruselerako bonoak oparituko dituzte (bidaiarengatik euro bat ordaintzeko). Eta, azokaren amaiera gisa, barixakuan Baratzek zerbitzatutako pintxo-pote berezia egingo da,

DJ Arnoren musikarekin girotuta, 18:00etatik 20:00etara, Errebal Plazan.

Beti bezala, ...eta kitto! Euskara Elkartea azokan egongo da hiru egunetan, 10:00etatik 12:30era, *Euskeraz Primeran!* kanpainako stand batekin, erosketen testuinguruan euskararen erabilera sustatzeko. Mahaira gerturatzeko direnak dadoa botako dute eta, irtetzen den zenbakiaren arabera, horma-irudi baten zati bat margotuko dute. Guztiz margotuta dagoenean, euskararen aldeko mezua agertuko da. Parte hartzen duten guztiei poltsa bana oparituko zaie eta, gainera, EMGIk emandako 100 euroko erosketa-txartela irabazi ahalko dute, zozketan.

'AndretxeaSEX' sexu aholkularitzarako zerbitzu berria eskaintzen dute Andretxean

Sexu aholkularitza zerbitzurako bulegoa zabaldu dute Andretxean, 10 eta 25 urte bitarteko gazteentzat (biak barne). Sexologa baten eskuetik emango den zerbitzuak honako hau eskaintzen du: ume, nerabe zein gazteentzako sexu orientazioa, aholkularitza eta akonpainamendu arduratsua; bakarkako arreta edo

talde txikietan; eta konfidentziazunez eta hurbiltasunez, zalan-zak argitzeko gunea.

Arreta jaso ahal izateko, hitzordua eskatu beharko da aldez aurretik, Andretxera WhatsApp-a idatziz (688 85 34 40), edo andretxea@eibar.eus helbidera mezua bidalita.



Etxegabetasunari END, inork kalean lorik egin behar ez izateko

Kale egoeran bizi diren hainbat lagun ditugu herrian. Errealitate horri aurre egin behar izaten diote egunero, negu gorria izan edo bero-boladak etorri, gizartearen zati baten mesprezua jaso edo askorentzat ikusezinak izan, eta irtenbiderik ez zerumugan. Azken hiru urteetan egoera horretan dauden pertsonentzat aldi baterako aterpetxea zabaldu zuten herrian, baina aurten ez, eta egoera aldatzeko END herri-plataforma sortu dute.



END plataformaren
Instagrameko kontua



Etxegabetasun arazoari konponbidea bilatzeko asmoarekin sortu du herritar talde batek END plataforma. Ingeleseko 'end' (amaitu) berbarekin egindako hitz-jokoa da, hitza osatzen duten hizkiak direlako Eibarko Neguko Dispositiboaren siglak ere. Hain zuzen ere, horren itxieragatik dator plataformaren sorrera, "kale egoeran daudenei harrera emateko", Marta Lores Fariña END plataformako kideak esan digunez.

Karmeldarren eraikinean jarri dute dispositiboa azken hiru urteotan. Iluntzean zabaltzen zituzten ateak eta erabiltzaileek goizaldean laga behar izaten zuten tokia. Plaza arrunta betetzen zutenek gehienez bost aldiz erabili ahal izaten zuten zerbitzua (Euskalmetek alerta egun izendatzen zituenez gain) eta egonaldi ertain/luzeko plaza batzuk ere eskaintzen zituzten. "Ez zen guztiz harrera egokia ematea lortzen",

bertan lan egin zuen Martak esan digunaren arabera.

2021eko abenduaren 1ean zabaldu zituen ateak eta denboraldi horretan 2022ko apirilaren 15era arte egon zen zabalik. Eibarko Udalak hartu zuen kudeaketaren ardura eta 101 lagun artatu zituzten (batezbeste, 13 lagun egunero). Azken bi denboraldietan Arrats elkarteak arduratu zen dispositiboaren kudeaketaz. 2022-2023ko neguan, urriaren 15etik apirilaren 15era, 149 lagun jaso zituzten (17 egunero) eta azkenengo urtean, 2023ko azaroaren 11tik 2024ko apirilaren 15era, 188 lagun. Beraz, gora egin duen kopurua dela ikusi daiteke. "Kopuru horren erdia baino gehiago urtero etorri da. Horrek esan nahi du urte hauetan euren kale egoera ez dela aldatu. Are gehiago, egoera okertu egin da urtetik urtera. Zulo handi bat dagoela erakusten du horrek", Martaren iritziz.



Perfil anitzeko jendeak osatzen du END plataforma. SILBIA HERNANDEZ

Urteroko erabiltzaileez gain, berriak gehitzen joan dira. “Gero eta emakume gehiago jaso ditugu, batzuk haurdun edo haur txikiekin”, Martak dioenez. Edu Egaña Mata END plataformako kidearen iritziz, kopurua hazi egingo da: “Etxegabetzeak gora doaz, gizarte arrakala gero eta handiagoa da...”.

Perfil ezberdinetako erabiltzaileak jaso ditu dispositiboak. “Edozein izan gaitzke. Batzuek esan digute inoiz ez luketela pentsatuko kale egoeran amaituko zutenik”, diosku Martak. Hori bai, aterpetxearen eta herriko segurtasun faltaren inguruan egin den lotura baztertzeko du. “Istiluak aterpetxea zabaldu baino lehenago eta itxi ondoren ere egon dira. Txostenetan ageri ez diren hainbat gauza leporatu dizkigute. Zenbakiak erakusten dute erabiltzaileen ehuneko txiki batek eragin duela istiluren bat. Beraz, baztertuta dagoen kolektibo bati

agresiboa eta arriskutsua dela leporatzea ez zaigu justua iruditzen. Gainera, aterpetxea 24 orduz zabalik balego, erabiltzaileen bizi-kalitatea asko hobetuko litzateke, buru osasunaren aldetik kudeaketa egingo litzateke...”, gehitzen du.

Aipatzekoa da, gainera, Eibarko Neguko Dispositiboak Debabarrena osoari ematen ziola zerbitzua eta END plataformak eskualde izaera horri eutsi nahi dio. “Debabarreneko udalek arazoari konponbidea eman behar zaiola uste dute, Eibarkoak dio berak eman duela zerbitzua urte batzuetan eta beste batzuei tokatzen zaiela orain...”, azaldu digu Martak.

Helburu nagusiak

END plataformaren helburu nagusiak hauek dira: “Batetik, aterpe zerbitzua berriz irekitzea, eta ez hilabete batzuetan bakarrik orain arte egin den bezala, baizik eta urte gutzirako eta egunero 24 orduz. Az-

ken finean, esku hartzeko orduan oso mugatuta sentitzen gara. Aterpea 20:00etatik 10:00etara egoten zen zabalik eta erabiltzaileak behar askorekin, zalantzekin eta bestelako kontuekin etortzen ziren, eta ez genuen denborarik hori guztia behar bezala asetzeko”, Martak dioenez.

Etxegabetasun egoeran daudenei oinarrizko mantenua, higienea eta lotarako segurtasuna eskaintzea da beste helburuetako bat, horrek bestelako aukerak ekartzen dizkietelako. Eta azken helburua gizarte zerbitzuetan kale egoeran dauden pertsonen errolda baldintzarik gabe artatzea izango litzateke. “Oinarrizko zerbitzuak emateaz harago joan nahi dugu”, diosku Martak.

Helburu horiek ez dute soilik asistentziako laguntza zerbitzuari erantzun nahi, kale egoeran dauden pertsonak oinarrizko gizarte-zerbitzuekin elkartzeko eta harremanetan jartzeko gune bat izatea nahi

da, oinarritzko gutxieneko eskubide batzuk eta giza eskubideen gutuna betetzen direla ziurtatzeko.

Arazoaz jabetu eta parte hartu

Neguko dispositiboan lan egiten duten pertsonak elkartu ziren lehenik egoera horri buelta ematen saiatzeko, eta beste arlo batzuetako herri-tarrak joan ziren gehitzen. Horrela, bazterkeriaren inguruan lan egiten duten profesionalen gain, mugimendu sindikal eta feministetako kideak eta bestelako gauzetan diharduten lagunek egin dute bat END plataformarekin. Horren adibide da Edu. “Taldearen barruan perfil ezberdina dudala uste dut, taldeko gehienek gizarte arloetan jarduten dutelako”, diosku. “Taldea sortu zela ikusi nuen Instagramen eta, oso interesgarria iruditu zitzaidanez, harremanetan jarri nintzen ahal den neurrian laguntzeko. Uste dut jendea ez dela etxegabetasunaren arazoaz jabetzen eta niretzat garrantzitsua da hau guztia gizartera zabaltzea. Eibarren paparra puzten zaigu ‘hiri guziz eredugarria’ garelako esanez, baina benetan gauzak egin behar diren orduan ez gara bustitzen edo ez gara guztiz konturatzen”.

Datorren astean, hilaren 20an Giza Justiziaren Munduko Eguna ospatuko da eta END plataformak ekintza berezi bat egingo du etxegabetasunaren arazoa ikusarazteko eta horren inguruko kontzientzia herrian zabaltzeko. Izan ere, elkar-tearen ateak edonorentzat daude zabalik, eta ekimenaren alde egingo duten lagunak beso-zabalik hartuko dituzte.

END plataforma hiru taldetan banatzen da: batetik, talde motorra



Untzagan kontzentrazioa egiteaz gain, Udaleko plenoan ere izan da plataforma. END

Aterpetxea urte osoan zehar egunero 24 orduz zabalik egoteko lanean dihardu END plataformak

dago, plataformaren egunerokoaz arduratzen dena; bigarrenik laguntza taldea dago, arlo ezberdinetako jendeak osatzen duena, eta bakoitzak bere jakintzatik etxegabetasunari aurre egiteko ekintzei forma emateko balio duena; eta hirugarrenik sare soziala dute, END sarea, eta kale egoeran dauden pertsonen sentsibilitatea zabaldu eta hauen egoera aldatu nahi duten lagunek osatzen dute.

Talde horiez gain, kale egoeran egon diren edo dauden lagunek ere

hartzen dute parte zenbait ekimen eta bileratan. Martaren iritziz hori oso garrantzitsua da, eurek bizi dituzten egoerak lehen eskutik ezagutzeko balio duelako. Azken finean, etxerik gabeko pertsonen euren bizitzaren jabe eta protagonista bihurtzea da END plataformaren asmotako bat.

Etxegabetasunaren arazoari modu kolektiboan aurre egin behar zaiola uste dute, elkartasunetik, ez karitatetik eta paternalistotik, eta beste eragile eta kolektibo batzuekin elkarlana egiteko prest ere agertu dira plataformako kideak. Gainera, erakundeekin harreman onak izan nahi dituzte, gaia konpondu ahal izateko “guztiok elkarrekin egin beharko dugulako aurrera”. Zentzu horretan, urtarrilaren 14ko Udaleko Plenoan izan ziren eta hainbat galdara eta erregu egin zizkieten agintariei. “Ez dugu politikoki lerratu nahi, agintarien eskutik nahi dugu aurrera egin”, diosku Eduk, “gogor eginez, baina errespetuz”.



Amañakoa izan zen Eibarko lehen igerilekua. Lehengo Alfa tailerraren aldamenean zegoen, Legarreko San Andres egoitzaren parean gutxi gorabehera. EIBARKO UDAL ARTXIBOA - INDALECIO OJANGUREN FUNTSA

Amaña ingurua zelakoa zen. Gerra ostean birritan bete zuten Alfa osteko igerilekua. 1939-40 inguruan itxi zuten.

Amañako igerilekua

Niceto Marcano Muguerza
(1932)



Aita, Luis Marcano. Aitaren anaiak, besteak beste, Angel eta Santiago. Guztiak oso ezagunak herritarren artean. Niceto 1952an hasi zen Alfan lanean, ofizina teknikoan. Marrazteko oso esku ona du; familiarik datorkio doai hori. Alfa lantegiak armagintzatik josteko makinara egindako jauzia, eta ondorengo urratsak bereziki, oso ondo ezagutzen ditu. Hizlari oso ona, azalpen zehatz bezain sakonak ematen ditu antzinako Eibar eta Alfako lantegiaren ingurua

Niceto Marcanori grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Nik pentsatzen naban gerra aurrekua zala] Gerra aurrekua bai, baiña gerra ostian be pare bat bidar edo bete eban. Bai. [Hori ze eitten zan, gero? Frankismo denporan,ez?] Eh? [Frankismo denporan eitten zan pistinia?] Bai. [Bai, ez? Sanidade kontuak, ez?] Ba itxiko eben ba berrogeixan edo hogeita hemeretrixan o berrogeixan. [Ta juaten ziñazian zuek?] Gu txikinak giñan, txixiak bai. [Zu noizkua zara? Noiz jaixua?] Ba exactamente republikako eguna, urtebetera. [Ene...] Ta gaiñetik Niceto izena.

Itsasorik gabe uretan murgilduta

Kosta ez dago oso urrun, 20 kilometro ingurura dugu Deba. Baina barnealdeko herria izanik, nabarmentzekoa da historian zehar Eibarrek itsasoarekin izan duen lotura. Harreman horren erakusle da Armagintzaren Museoa ikusgai dagoen 'Eibarko itsas abentura' esposizioa. Martxoaren 30era arte egongo da zabalik eta, herriak itsasoarekin duen lotura historikoa azaltzeaz gain, hainbat pieza erakutsiko dira.

Marina Barrena Armagintzaren Museoko arduradunak eta Ane Urain Udaleko Ondare Historiko eta Kulturalaren teknikariak Portalea eraikinaren 5. pisuan dagoen museoko atezabaldutik dizkigute 'Eibarko itsas abentura' erakusketan murgiltzeko. Sartu eta berehala, atentziora ematen du bertan aurkitzen dugun itsasontzi baten maketak, eta herriak itsasoarekin izan duen loturaren historian zehar nabigatzeko balioko digu.

Gaur egun azkar iristen gara kostaldera, baina orain dela mende batzuk bestelakoa zen kontua. Horregatik izan daiteke harrigarria Eibarrek itsasoarekin lotura estua edukitzea, baina Barrenak eta Urainek horren arrazoiak eman dizkigute. "Guk dakigula, eta horrela azaltzen da erakusketan, XV. mende inguruan hasi zen Eibar eta itsasoaren arteko harremana. Bereziki, burdinezko produktuak egiten ziren



hemen bere helmugara eramateko. Eibartik Altzolako ibai-portura eramaten ziren lehenik, eta handik Debara", azaldu digu Urainek.

Ibai-portua Altzolan? "Ibai estu batekoa izanda, portu txikia zen", diosku teknikariak. "Altzolaraino errepidetik eramaten zituzten produktuak eta han txalupa txikietan sartzen zituzten Debara eramateko. Gero, Deban, itsasontzi handietan sartzen zituzten", zehazten du Barrenak.

Eibarko itsasgizonak

Urteetan aurrera egin ahala, Eibarren eta itsasoaren arteko erlazioa aldatzen joan zen eta itsasoarekin lotura zuten pertsonaiak agertzen joan ziren: grabadoreak, marinelak, kapitainak... Hala nola, Isasiko Markesa armadorea izan zen eta Deban itsasontziak eraiki zituen, hemengo produktuak Sevillara eta beste hainbat tokitara eramateko, besteak beste.



Martin de Orbea e Ibarra izan zen herriak eman zituen itsas gizonetako bat. EKHI BELAR

Marinel eibartar gehienak merkatariak izan ziren eta, Amerikako aurkikuntzarekin batera, Ameriketara egon ziren horretan lanean. Adibidez, Martin de Orbea e Ibarra Espainia Berriko XVII. mendeko ontzidiko jenerala eta Santiagoko Ordeneko zalduna izan zen eta bere koadro bat dago ikusgai erakusketan.

Sasoi hartako merkataritzaren barruan esklabutza oso presente zegoen, eta marinel eibartar horiek ere izan zuten horrekin lotura. “Dakiguna azaldu behar da eta, zintzo jokatzeko badugu, esklabuen salerosketa egiten zutela esan behar da”, aipatu digute Barrenak eta Urainek.

Ekonomian eragina

Itsasoak berebiziko garrantzia izan du herriko merkatarientzat eta, ondorioz, eragina izan du Eibarko ekonomian, merkataritzaz gain, beste sektore batzuetan ere. Hala nola, burdingintzan. “Burdgingintzarako

>>> 'Eibarko itsas abentura' erakusketa martxoaren 30era arte egongo da zabalik Armagintzaren Museoan

>>> Kostan egon ez arren, Eibarrek itsasoarekin lotura estua izan duela erakusten du esposizioak

behar ziren materialak ibaitik iristen ziren Bilbotik edo Somorrostrotik, besteak beste, eta piezak toki beretik iristen ziren”, kontatu digu Barrenak.

Herrian armadoreak egon arren, itsasontziak Deban eraikitzen zizuten, baina pieza batzuk hemen egiten ziren. “XX. mendean, Garra eta Laspiur burdindegiek, adi-

bidez, pieza batzuk egin zituzten”, diosku Barrenak, eta euren piezen moldeak eskuratu dituzte museoko erakusketa horretarako. Hain zuzen ere, Laspiur familiak egindako dohaintza izan da erakusketa hau antolatzeke arrazoi nagusia. Pieza horiei Garra enpresarenak gehitu zituzten eta, hortik abiatuta, eraiki zuten erakusketaren diskurtsoa.



Marina Barrenak eta Ane Urainek erakusketaren nondik norakoak kontatu dizkigute. EKHI BELAR

>>> Garra eta Laspiur enpresen dohaintzez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hainbat pieza laga dituzte

>>> Iaz inoizko bisitari kopuru handiena jaso ondoren, museoa El Corte Inglesera eramateko asmoa erakutsi du alkateak

“Ikusi genuen bazegoela zer kontatu Eibarren eta itsasoaren inguruan”, diosku Urainek.

Esklaboen balioa eskulekuan

Enpresen piezez gain, Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik ekarritako hainbat pieza daude. Hala nola, itsasontzi baten maketa, arpoiak, esklaboen esku-

lekuak, Altzolako grabatu batzuk... “Erakusketa jantzi nahi izan dugu”, teknikariaren berbetan.

Erakusketa prestatzeko lanetan bitxikeria bat edo besterekin ere egin dute topo. “Esklaboen eskulekuen kontua bitxia da. Izan ere, esklaboen salneurria edo balioa zein zen zehazten zuten elementuak ziren. 8-10 eskuleku inguru balio zituen

esklabo batek. Zenbat eta eskuleku gehiago izan, esklabu horrek balio handiagoa zuen”, kontatu digu Barrenak. Erakusketan hamar eskuleku daude ikusgai eta Getariaren hondoratuta aurkitu zuten itsasontzi batetik eskuratu zituzten.

Bisitariak gora

Erakusketa abenduaren 18an zabaldu zuten eta, zenbait astetan arazo teknikoak izan dituztenez, martxoaren 30era arte zabalik egongo da. “Momentuz harrera ona izan du eta bi hilabete falta dira amaitzeko”, goratzen du Urainek.

Azken urtean Armagintzaren Museoan egon den jarduna ikusita, badirudi hainbat bisitari gerturatuko direla Eibar eta itsasoaren arteko loturaren inguruan gehiago jakiteko. 2024an 4.865 bisitari izan ziren museoan, inoizko kopururik handiena. Gauzak horrela, Jon Iraola alkateak museoa El Corte Inglesen eraikinerara tokiz aldatzeko asmoa

dagoela adierazi zuen joan den astean Radio Eibarren. “Museoa erai-kin horretara eramateko ditugun asmoak gauzatzea espero dugu”, adierazi zuen.

Datuak esanguratsuak diren arren, kexu da Barrena: “Pena da Eibarko jende gehiago ez etortzea”. Datuen arabera, bisitarien %39 beste erkidego batzuetatik etorritakoak dira, kopuru handiagoa bertako bisitariena baino (%25). Era berean, atzerritar ugarik bisitatu dute museoa (%5); datua museoaren estatuko zein nazioarteko proiektzioaren erakusgarri da.

Barrenaren ustez bisitari guztiak dira garrantzitsuak, “baina enpresa munduko jendea (enpresariak, langileak, bezeroak, hornitzaileak...) etortzea eta izan ginena, gaur egun garena eta egin duguna ikusteak balioa ematen dio museoari”. Herrian egon diren aldaketen ondorioz, museo berebiziko tokia da horrelako gauzak jakiteko. “Herriko kaleetatik pasiatzen ezin gara konturatu Eibar zer izan den, ezta orain dela 40 urte ere, eta ez dago hain urruti”.

Escape Rooma

‘Eibarko itsas abentura’ erakusketa eta erakusketa iraunkorraz gain, museoak beste ekimen bat bultzatu zuen orain dela hilabete batzuk: Escape Rooma. “Museoa hobeto ezagutzeko balio duen jarduera”, Urainen ustez. Izan ere, parte-hartzaileek bertan topatzen dituzten pistekin aurkitu beharko dute planteatzen zaien egoeraren ebazpena.

Helburu nagusia Andres de Astigarragaren hiltzailea nor den aurkitzea da. “Asmatutako istorioa da”, ar-



Itsasontzi baten maketa dago ikusgai museoan erakusketan. EKHI BELAR

gitzen du Barrenak, baina historian benetan gertatutako elementuek lagunduko die parte-hartzaileei.

Familiei eta gazteei (13-14 urtetik gorakoak) zuzenduta dago, eta parte-hartzeko eguna eta ordua zehaztu behar da aurretik 943 70 84 46 edo 943 70 84 00 telefonoetara deituta edo museoan@eibar.eus helbidera idatzita.

BIDEOA




Lanbide Heziketako ikasleek sortutako ehundaka ideia Ikasenpresa Azokan

XIV. Ikasenpresa Azoka egin zen atzo goizean Untzagan eta Txaltxa Zelaian jarri zituzten karpetan. EAE osotik etorritako Lanbide Heziketako bi mila ikasle inguruk hartu zuen parte bertan eta 410 ikasenpresa aurkeztu zituzten. Informatika, mekanizazioa, zurgintza, kirola, sukaldaritza, estetika... Mota askotako proiektuak garatu dituzte ikasleek eta han bildu zirenei erakusteko aukera izan zuten.

BIDEOAK



ARGAZKIAK





Hartza iratzarri da, has dadila inauteria

Otsailak 2, Kandelario. Trumoi hotsa aditu da. Oskarbi dago hala ere. Zulo beltzean luzaroan geldu egon den piztiaren giharrak tinkatzen hasi dira. Lotan egin duen puzkerrak iratzarri du. Hilabeteetako loaldiaren nagiak askatu, kiribilduta izan den zuloaren berotasuna utzi eta leizearen ahora hurbildu da. Atzeko bi hanken gainean zutitu eta zerura luzatu du begirada. Ilargiari begiratu dio lehenengo. Izarrak behatu ditu gero. Burua jaitsi eta hankak lur hartu ditu. Bai, eguna da. Iritsi da ordua. Hartzulua uzteko garaia da. Bukatu da negua. Has dadila inauteria.



Hartzak eta Aratosteak lotura estua dute tradizioan.

Gurean ere bagoaz girotzen, urteroko sasoi hori harrapatzeko gogoz. Datorren asteko martitzenean, hilaren 18an, Portalean "Momotxorroak. Kaos baten istorioa" dokumentalaren proiektzioa izango da lehen urratsa. Handik bi egunera, 20ko egunean, koko-dantzetan parte hartzeko entseguak egingo dira Errebalen. Eta beste bi egun geroago, hilaren 22an, Koko-eskea eta koko-dantzen eguna izango dugu, goizez baserri bueltan eta arratsaldez herriko kaleetan. Azkenik, otsailaren 27an hasi, Eguen Zuriarekin, eta martxoaren 4ra arte, Aratoste Martitzenera arte, iraungo dute aurtengo Aratosteek Eibarren, eguneroko ekitaldiekin osatuta.

Altsasuko Inauteriak galdakaotarren eskutik

Abenduan kaleratu zen "Momotxorroak - Kaos baten istorioa" dokumentala; Altsasuko inauterien berreskurapena kontatzen du, baita inauteriaren esanahia ere, Galdakaoko Andra Mari dantzari taldeak bildutakoaren arabera. Talde hori lekuetako biztanleekin, dantza maisuekin eta kultura adituekin harremanetan jarri da, tokian tokiko tradizioak ikasteko eta berpizteko. Bere proiekturik esanguratsuenetako bat Altsasuko inauteriak berreskuratzea izan zen. Antzinate handiko jaia izan zen, ahaztuta geratutakoa, harik eta Ricardo Aldasorok, herriko nagusienetako batek,

>>> Galdakaoko Andra Mari dantzari taldeak Altsasuko inauteriak berreskuratu zituen; Nafarroako Gobernuak interes turistikoko festa gisa hartzeraino

momotxorro mitikoak (ospakizun horren elementu nagusia) gogora ekarri zituen arte. Hain zuzen ere, oroitzapen horrek bultzatu zuen Altsasuko inauterien berpiztea, *Momotxorroak: Kaos baten istorioa* dokumentalak jasotzen duen prozesua.

Urteetan ikertu ondoren, 1978an Andra Mari dantza taldeak lehen aldiz plazaratu zuen inauteria Altsasun, interes handia piztuz eta Altsasuko komunitatea mugiaraziz, bereziki belaunaldi berriak, jai hori biziberritzeko erronka hartuko zutenak. 1982an inauteriak gogo biziz ospatu ziren berriro Altsasun eta, orduetik, tradizio horri eutsi dio urtez urte, 2012an Nafarroako Gobernuaren interes turistikoko festa gisa aitortzeraino.

Aipatutakoa laburbiltzen duen dokumentalak 45 minutuko iraupena du eta, Kezka Dantza Taldearen eskutik, otsailaren 18an ikusteko aukera izango dugu Portalean, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Koko-eskea eta koko-dantzak aitzindari

Eibarko Aratosteak eurekin hasten dira. Kezka Dantza Taldeak jakin izan du txinpartatik su bizia ateratzen, modu horretan tradizio-izpi zena ohitura bilakatzen;



Galdaokarren dokumentala 18an ikusi ahal izango da Coliseon.

aldi berean, kalez kale eta baserriz baserri giro berezia sortzen. 2008an lehen aldiz egin zuten agerraldi hartan ziotenez, “Eibarko aratusteen inguruan erabili izan diren zenbait ohituretatik jaso ditugu su berria pizteko erabiliko ditugun txinpartak. Ohitura biziak ez ditugu horrenbeste ezagutu, baina Toribio Etxebarriak eta Juan San Martinek bildutakoek balio izan digute puzzle berrirako pieza zahar batzuk ere balio zezaketela konturatzeko”. Ahaztu barik “etengabeko aldaketek egiten dutela tradizioa tradizio”. Eibarren ateratzen



Koko-eskea Erreal Plazatik abiatuko da zapatu goizean. Bi egun lehenago azken entsegua egingo dute toki berean.



Burburixuak



Maria, Hartzia, Sasikartia & Martin perratzailea



Don Eusebio, Petra, Batista, Arraguetako Amabirjina, Kattalin & Manuela



Aixerixak

diren koko-dantzari eta koko-marruak herrikoak bertakoak dira, berezkoa dute eta bereziak dira. Hala gorpuztu ziren mamarruak; burburixuak; masustak; aixerixak; hartza; Petra eta Maria; Don Eusebio; Kattalin eta Manuela; Batista kojua; Arraguetako Ama Birjina, Martin Perratzailea; Sasi-kartia... eta koko-dantzariak eta euren makil-jokoa. Koko-buruxagixa eta Paganekua (Juanpago eta Juanapaga) baztertu barik. Badute zer kantatu: "Koko-moko / zaria bete moko. / Gibel, gibel / afarittarako. / Dirua baneuka / patrikarako".

Baserrietan goizez, kalean arratsaldez

Datorren asteko zapatuan, ohiko bidetik, goizeko 08:30ean abiatuko dira egun horretako parte-hartzaileak Errebal plazatik eta 09:00etatik 14:00ak arte gutxi gorabehera, Aginako eta Mandiolako baserrietatik ibiliko dira. Diotenez, "Eibar osoari lau urtetan buelta emateko asmoarekin hasi baginen ere, ikusi dugu hori larregizkoa dela, batzuetan ilundu ere egin izan zaigu eta. Horregatik, nahiz eta itzuli osoa egiteko urte gehiago beharko dugun, baserri gutxiago egiten ditugu. Iaz Agina amaitu barik laga genuen eta oraingoan, Gipuzkoa eta Bizkaiaren mugatik abiatuta ea Mirafloreseraino heltzen garen".

Baserritarrekin izaten duten harremana hunkigarria ere izaten dela dioskue: "Azken batean, truke-jolasa izaten da, ez eskea. Etxeko produktu apreziatuenak eskaintzen dizkigute, izan ortukoak, hamaiketako bera...". Hasi zirenetik ez dute kalerik egin eta pandemia sasoiaren ere irten zuten, "hori bai, ibilbide motzagoak eginez eta kontu handiagoarekin".

Behin arratsaldean sartuta, 18:30etik aurrera, Errebal Plazan elkartuko dira koko-mokoak, eta dantzetan eta kantuetan Mauxitxa txarangak lagunduko die. Erdiko kaletik jardun ondoren, Errebal Plazan egingo dituzte azken koko-dantza eta kantuak 21:15ean. Egun horretako ekitaldiak prestatzeko, bi egun lehenago, datorren asteko eguenean, azken entsegua egingo dute Errebal Plazan bertan: arratsaldeko 19:00etan hasi eta 22:00etan amaitzeko. Antolatzaileek diotenez, "edonork har dezake parte eta jantziak ere banatuko dira".

**>>> "Koko-moko / zaria bete moko.
Gibel, gibel / afarittarako.
Dirua baneuka / patrikarako"**

>>> Kaldereroak 90. hamarkadan domekan irtetzen zuten; gero pasatu ziren Aratoste Barixakura

Eguen Zuritik Aratoste Martitzenera

Bost egun horiek hartzen dituzte hurrengo egunetarako antolatutako egitarauak. Otsailaren 27an, Eguen Zurian, eskoletako ohiko taldeen kalejiren ondoren, 17:00etan hasiko dira egun horretako ekitaldiak. Hor Urkizutik Untzagaraino joango dira kalejiran, Jainaga eta Narbaizak girotuta. Behin Untzagan, Eibarko Lisker taldeak erromeria eskainiko du, eta ez dira tailerrak faltako, Astixaren eskutik kareta eta makillajea landuko baitituzte. Galiziako Etxean mozzorro lehiaketa antolatuta dute 19:00etarako.

Hurrengo egunean, Aratoste Barixakuran, Kaldere-roek hartuko dute protagonismoa. Lehen aldiz 1932. eta 1935. urte bitartean kaleratu ziren Eibarren, Danba kuadrillako 20 gazte inguru zirela, Eibarko Orfeoiko partaideak gehienak. Gerrateak ekarri zuen eten luzea gainditu eta orduko oihartzunak gogoratu, 1991an hasi zen Kezka Dantza Taldea ohitura berreskuratzen. Dena dela, hasieran Kaldereroak ez ziren barixakuran irtetzen, "Aratoste domekan baizik, urte haietan barixakuran sasoi hartan ospea hartu zuten Realisten desfile egiten zelako".

20:00etan abiatuko dira Urkizutik eta Untzagaraino joango dira. Baina Aratosteetako pregoia oraingoan ez da Errebalen irakurriko; horren ordez, kaleak hartuko du tokia eta Deporren aurrean, Toribio Etxebarria kallean izango du kokagunea, 20:30ean hasita.

Martxoaren lehenengo asteburua

Behin asteburuan sartuta, eta martxoan aldi berean, Aratoste Zapatuan rock musika izango da herriko kaleetatik, 12:30ean hasita, eta hor izango du bere tokia Aratosteetako kuadrillen kalejirak, Ustekabe eta Sin Juicio fanfarreek lagunduta. Photocall-a izango da Untzagan. Eta arratsaldean herriko Mugi Panderoa taldea ibiliko da jo eta su: 19:00etan umeendako berbena eskainiz, eta 23:30etik aurrera dantzaldira bilduz jendea; ekitaldi biak Untzagan izango dira.

Aratoste Domekan Usartzako txistulariek kalejira egingo dute, goizeko 11:00etan hasita; eta arratsalde, 17:00etan umeendako Play-Back Lehiaketa izango da Untzagako Karpan eta, handik ordu eta erdira, DJ Arno toki berean.



Masustak



Mamarruak



Koko-dantzarixak eta koko-buruzagixa



Koko-musikariak



AMAIA EREÑAGA

Txaltxa Zelaitik

Lau hamarkadaren buruan, Txaltxa Zelaiko bankuetan nago. Berriz. Bizitza ziklikoa delako. 19 urterekin herritik alde egin eta, txoko langile, zikin eta bizigarri honi konektatuta mantentzen nauen zilbor-hestea sekula erori ez zaidan arren, azken garaiotan olatu baten barnean murgilduta nagoen sentsazioa dut. Bor-bor, dantzan, sumatzen dudana zerbait da. Zaintza-lanetan surfeatzen nagoelako izango da.

Herritik kanpo bizitza egin dutenen beste asko legez, gurasoak zahartu ahala, gure haurtzaroaren lekuko izan ziren bazterretara bueltatu naiz. Hor gabiltza, nire belaunaldiko asko, atzera-aurrera, gure zaharren pauso geldoei sinkopatuta edo gurpil-aulkiari bultzaka. Munduko bazter urrutienetatik etorritakoekin batera, eta haiei esker, zaintza lanetan. Gu ere, Eibarko populazio ezegonkorren datuetan zenbatu beharko gintuzkete.

Ataka honetan, gure egunerokotasunaren paisaiek Kalamua, Urko eta Arrate hartu dute mugarri. Untzaga da itsasargia. Eta Txaltxa Zelaiko bankuak, talaia. Alfako sirenaren hots sarkorra faltan sumatzen dut, baina herriaren erritmoak antolatzen dituzten ordeko erritu batzuk sortu direla ohartu naiz: Ipuruko marmarra, futbol-partidua dagoen egunetan; Untzagatik igotzen den burrunba, asteburu antolatzen diren askotariko festa jendetsuek sortutakoa...

Urtaroak joan, urtaroak etorri, Txaltxa Zelaiko talaian gure zaharrok eta guk neguaren hotz gorriari tinko eutsi diogu, baita abuztuko beroei ere, nahiz itzalen arrastorik inon agertu ez. Zuhaitz gutxi baitago Eibarren, eta garabi-txanpiñoi asko!

Berotze globalaren errealitateari muzin egin al dio herri honek? Eremu berdeekin freskotasan oasi txikiak sortu ordez, porlanez lepo bete dituzte bazterrak; eta dauden parkeak, txakurren kaka-leku bihurtu dira. Oinezkoentzat guneak irabazi beharrean, autoak dira nagusi. Disuasio-aparkalekuak, missing.

Ados, apokaliptiko jarri naiz, baina esan nahi dudana zera da: gaur egungo Eibar ez da zaharrentzat egokia. Zahartzen naizenean herrira itzuli nahiko nuke? Ummm, ez dakit ba! Eta zuek?

Azken oharra, auzoko zaharrek aginduta: Txaltxako bankuak berriztu ditzala Udalak, adinekoek ere gauza politikak maite/merezi ditugulako.

“Herritik kanpo bizitza egin dutenen beste asko legez, gurasoak zahartu ahala, gure haurtzaroaren lekuko izan ziren bazterretara bueltatu naiz”



Elene Oyarzabalek brontzezkoak irabazi zituen Espainiako Master Txapelketan

Eibar Igerixaneko bost ordezkariak hartu zuten parte aurreko asteburuan Oviedoko Parque del Oeste igerilekuan jokaturako Master mailako Neguko Espainiako Open Txapelketan. Euren artean Elene Oyarzabal nabarmendu zen, 20 urtetik gorakoenen artean brontzezko dominak irabaziz 50 eta 100 metroko libre erako probetan, eta 4. eta 6. izanda bizkar erako 50 eta 100 metrokoetan, hurrenez hurren.

25 urtetik gorakoen mailan parte hartu zuen Ander Salaberriak lau probetan hartu zuen parte, 11. izateko 400 metroko libretan. Postu bera eskuratu zuen Marina Azpia-zuk 35 urtetik gorako 100 libreko proban. 40tik gorako ertain lehiatu zuen Gorka Areitioaurte-nak beste lau probatan hartu zuen parte, eta 45etik gorako ertain hiru proba osatu zituen Ricardo Fernandezek.

Urbateko senior mailako taldeek ez zuten jakin partiduak irabazten

2. Nazional Mailan jokatzen duen Urbat-Urko-tronik-eko lehen taldeak Ligako azken jardunaldian, eta Euskal Herriko Kopako lauko finalerako txartelaren bila jardun zuen bigarren taldeak... bieran gauza bera gertatu zen: hirugarren zatian talde biek abantaila nahikoarekin irabazten zituzten partiduak azkenean galtzen amaitu zituztela. Lehen taldeak 9-6 irabazten zihoa 12-17 galdu zuen, ordura arte defentsan erakutsitako sendotasuna eta erasorako ideiak galtzen joan ahala. Bigarren taldeak, bestalde, 8-5 aurretik zihoa-nean, orekarik gabeko hiru minutu



besterik ez zituen behar izan sei gol jarraian jaso eta 11-13 galtzeko. Ez da lehen aldia Urbatekoei denboraldi honetan halakoak gertatzen zaiena; horregatik, taldeko teknikariek diotenez, “lan handia

dugu aurretik denboraldiko bigarren fasean ezarritako helburuak lortzeko, tartean mailari eusteko”. Asteburuko berririk onena Asier Ortiz de Zarateren itzulera izan zen, lesio luzea atzean lagata.



Asteburuan itzuliko da futbol-zaletuen liga Unbera, 16. jardunaldia jokoan dela

Kirol instalazioetako langileen grebaren eraginez, futbol-zaletuen liga txapelketa hiru asteburutan geldirik egon ondoren, lehiaketak asteburu honetan berririo helduko dio betiko martxari. 16. jardunaldiko partiduak ohiko ordutegietan jokatu dira, egitarau honi jarraituz: zapatuan, Malape Taberna - Baserra (09:00) eta Garajes Garcia - Adahi Etxegi (10:30), beheko zelaian; eta domekan, Kalaka Buenos Aires - Xania Taberna (09:00) eta Bar Marem - Limpieza Rueda (10:30), goiko zelaian.

Casinoko billar taldeak etxean jokatzeaz baliatu nahi du sailkapenean igotzeko

Billarreko Nazional Mailako Liga Eibarrera bueltatuko da bihar, gure herriko Casino Artista Eibarres eta Alcobendasen arteko neurketarekin. Goizeko 10:00etan hasiko da jardunaldia, bi partidekin, eta 12:00etan jarraituko du, beste biekin. Eibarko laukotea Jorge Molinos, Ricardo Robles, Sergio Boulosa eta Ricardo Ereñak osatuko dute eta euren asmoa da etxeko bigarren garaipena eskuratu eta

multzoko hirugarren postuari eustea. Neurketak, gainera, motibazio berezia izango du eibarrantzat, orain dela gutxi laga digun Antonio Martinez taldekidea gogoan, hari dedikatu nahi baitiote garaipena. Martinezek hiru bandatara jokatutako Gipuzkoako txapela jantzi zuen orain dela lau urte, maila bikaina erakutsiz. Partidak ikusteko sarrera doanekoa da; hori bai, aforoa bete arte.



Casinoko billar taldeko laukote bat, orain dela gutxi laga digun Antonio Martinezekin.

Ipuruako gimnastak indartsu bueltatu dira lehiaketetara

Aurreko zapatuan jokatu zen Gipuzkoako amateur txapelketarako lehenengo fasean, Ipuruakoek hiru talde aurkeztu zituzten eta beste



13k lehiatu zuten banakako modalitatean. Bi sailkapen fase gainditu behar dituzten honetan, Ipuruako gimnastek nota onarekin gainditu zuten lehenengo urratsa, Ipuruako gehienak sailkapen-taulen goialdean kokatu baitziren.

Taldekako modalitatean, jubenetako A taldea hirugarren izan zen, eta kadete mailako beste biak 2. eta 8. postuetan sailkatu ziren. Banakakoari dagokionez, B kade tetan Lur Bilbao, Marc Gabilondo eta Iraia Calles lehen hiru postuetan geratu ziren, orden horretan, eta June Etxaniz zazpigarren izan zen.

Jubenetara pasatuz, A mailan Lia Romano, Saioa Rodriguez eta Yuma Otalvaro bigarren, hirugarren eta bosgarren sailkatu ziren, hurrenez hurren; eta B mailan, Olatz Vieira eta Gorane Mendibe lehen bi postuetan geratu ziren, orden horretan. Azkenik, A Masterrean Uxue Etxeberriak 5. postua lortu zuen eta Alicia Etxanizek 9.a; B Masterrean parte hartu zuen Irea del Rey zazpigarren izan zen.

Asteburu honetan Eskolartekoen lehenengo fasea jokatuko da Azpeitian: bihar alebinen txanda izango da eta etzi infantilena.

Udaberri Torneoko gazteenak Astelenan, seniorrak etxetik kanpo

Gaur afizionatuen mailako ohiko jaialdia hartuko du Astelena frontoiak, Klub Deportiboko pilotarien parte-hartzearekin. Errendimenduko gazteekin hasiko da jaialdia, Gipuzkoako Txapelketako lehen fasea amaitu eta Mendebaldeko eskualdeko klubaren artekoari ekiteko, honako hiru partiduekin: Saez-Oñederra bikotea Aretxabaletakoan

aurka, Colmenero-Agote alegitarren kontra, eta Arrieta-Uskola alebin mailako bikotea Arrasatekoei aurre eginez.

Ondoren Udaberri Binakako Torneoko laugarren jardunaldia barruan, jubenil mailako Seguro-la-Gisasola bikoteak Azpeitikoa izango du aurrez aurre, eta kadete mailako Varona-Gilek tolosarrei

egin die aurre. Deporrek senior mailako bikoteak, bestalde, kanpoan jokatuko dute oraingoan: gaur Lazkaon arituko da Narvaiza-Iraolagoitia bikotea (azken horrek Agirresarobe ordezkaturiko du, min hartuta baitago), eta bihar Orion jokatuko du Ibarra-Conde bikoteak, aurrera egiteko puntu garrantzitsuak jokoan direla.

SD Eibarko talde nagusiek itxi dituzte euren plantillak

2. Mailako Hypermotion Ligan jokatzen duen gizonetzkoen taldeak azkenean lau jokalaririk bakarrik fitxatu ditu neguko leihotxoan. Aurretik Las Palmasek lagatako Ivan Gil erdilariarekin batera, Osasunatik datorren Javi Martinez erdilaria, Basileatik datorren Arnau Comas atzelaria (argazkian) eta Toulousetik ekarritako Alex Dominguez



atezaina daude. Bestalde, 1. Mailako F Ligan jokatzen duen emakumetzkoen taldera Mariana Cerro (argazkian) eta Carmen Alvarez etorri dira: lehenengoa Athletic-ek lagata eta bigarrena Betisetik bueltan.



Olaztin hasi eta Etxarri-Aranatzen amaitu zutenetako batzuk, elurretan gozatzen.

Hilaren 22an eta martxoaren 8an izango dira Deporreko hurrengo mendi-irteerak

Aurreko zapatuan Deporreko mendizaleek egindako azken txangoaren ondoren, sagardotegiko irteeran izango dute hurrengo “erronka” eta ondoren, handik hamabost egunera, Herri Txikien multzoko beste etapa bat, Urdiain eta Etxarri-Aranatz lotuko dituen. Aurreko zapatuan, Olaztitik irten eta, hoguei kilometroren bueltan, Etxarri-Aranatzen amaitu zuten zeharkaldia “ahantzezina” egin zuten. Otsailaren 22ko irteera Mandubian hasi-

ko dute eta Legorretan amaituko, bidean 17 kilometro egin ondoren Begiristain sagardotegian amaitzeko: plazak mugatuta daude. Martxoaren 8ko “Herri Txikiak”-eko irteeran 16 kilometro eta erdi egingo dituzte, tartean Intsusburu (942 metro) eta Txaradigorri (987) eginez. Aurrez, dena dela, Haurren mendi irteera berri bat egingo dute domeka honetan bertan, Urdanetatik Iturrananera joanez, Pagoetaz gozatzeko aukera bikainarekin.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumetzkoen 1. Maila

Tenerife - SD EIBAR (bihar, 18:00)

Gizonetzkoen 2. Maila

Castellon - SD EIBAR (bihar, 14:00)

Gizonetzkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Aragon (etzi, 12:30)

Emakumetzkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Cornellá (bihar, 16:00)

Gizonetzkoen 3. Maila RFEF

Santurtzi - SD EIBAR C (etzi, 11:15)

Emakumetzkoen Euskal Liga

Zarautz - SD EIBAR C (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

Idiazabal - URKI (etzi, 12:00)

EIBARTARRAK - Zarautz B (bihar, 18:30)

Erregionaleko 1. Maila (Kopa)

URKI B - Aretxabaleta C (bihar, 16:15)

Jubenilen Ohorezko Maila

SD EIBAR - Danok Bat (etzi, 15:30)

Jubenilen Nazional Liga

Indautxu - SD EIBAR B (etzi, 18:00)

Jubenilen Euskal Liga

URKI - Lakua de Vitoria (bihar, 12:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Malape Taberna - Baserri (bihar, 09:00)
- Garaj. Garcia - Adahi Etxegi (bihar, 10:30)
- Kalaka Buenos Aires - Xania (bihar, 10:30)
- Bar Marem - Limp. Rueda (bihar, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonetzkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Goierri (bihar, 16:00)

ESKUBALOIA

Emakumetzkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Sinfin Santander (bihar, 18:30)

Gizonetzkoen 1. Nazional Maila

Egia - MEK EIBAR (bihar, 20:00)

Emakumetzkoen Euskadiko Liga

Urdaibai - MEK EIBAR B (bihar, 18:00)

Gizonetzkoen Lurraldeko Liga

Urola - MEK EIBAR B (bihar, 16:00)

FRUGBIA

Gizonetzkoen Euskal Ligako 1. Maila

EIBAR RT - Universit. Bilbao

Emakumetzkoen Euskal Ligako 1. Maila

EIBAR RT - Sarako Izarra

WATERPOLOA

Gizonetzkoen Master Maila

URBAT - RoW (bihar, 10:15)

XAKEA

Gipuzkoako 1. Maila

EIBAR A - Berkoa Elgoibar (bihar, 16:00)

Gipuzkoako 3. Maila

Anaitasuna Kakute B - EIBAR B

Tolosa - EIBAR C



Su Ta Gar taldearen fanzinea sortu du Urko Ansak

Musika talde eibartarraren jarraitzaile sutsua da Urko Ansa markinarra eta, kritikiko musikala izan denez, hainbatetan idatzi du euren inguruan, elkarrizketak zein erreportajeak izan. Pasio horrek eramanda, Su Ta Gar-en inguruan idatzitako guztiak eta argazkiak bildu ditu, 80. eta 90. hamarkadetako estiloari jarraituta fanzinea eskuz sortzeko. Bertan agertzen diren testuak eta argazkiak (denak berak egindakoak), ostera, azken 25 urteetara mugatzen dira, “bestela liburu potolo bat irtengo zitzaidalako”. Mondo Sonoro aldizkarian, Berrian, Entzun aldizkarian, Gara-n eta beste hedabide batzuetan idatzi du Ansak. Fanzinearen azala eta marrazkiak egiteko, gainera, Amaia Nolla herrikidearen laguntza izan du. Bere lana Durangoko Azokan egon zen salgai, eta orain Markinako Uhagon kulturgunean lortu daiteke. Ondarrun, Mutrikun, Bilbon eta Eibarren ere eskuragarri egoteko ahalegina egingo du.

‘Pizpirri’ diskoaren aurkezpena

Gaur arratsaldean aurkeztuko dute “Pizpirri. Pozgarri eta pizgarri”, 18:30ean Arrate Kultur Elkartearen. Diskoa Amaiar Iragik bere aita Harriet Iragirekin batera sortutakoa da: “Aita preso baten eta bere alabaren arteko historia da, espetxealdian sortutako hamar kantuk osatzen dute, hainbat euskal artisten ahotsetatik abestuak”. Aurkezpen ekitaldian diskoa erosi ahalko da.



Slide eta Painapple taldeen kontzertua Ez Dok Zai-zoin

Kontzertu bikoitza antolatu dute biharko Ez Dok Zai-zoi tabernan: 19:00etatik aurrera Slide eta Painapple taldeak arituko dira zuzenean, eta sarrera doan da. Bi taldeak aurretik ere aritu dira gure herrian, besteak beste iazko ekainean egin zen *Izengabeak* lehiaketan, eta biek lortu zuten saria. Slide funk&soul taldea da. Gitarrista eta musikagile onenen artean dagoen Chuma Segurak gidatzen du, eta bederatzi partaide ditu. Eta Painapple Eibar, Ermua eta inguruko musikariek osatzen dute: Katarine Berrueta, Asier Cascan, Andoni Conde, Gorka Martinez de Lagos eta Josu Cascan dira taldekideak eta pop-punk estiloko musika egiten dute.



North School kolektiboak rap gaua eskainiko du gaur

Rap gaua antolatu dute gaurko Hatorren (Untzagako dorrean, Kala tabernaren azpian). North School talde eibartarra arituko da bertan, errimekin jolasean, 23:00etatik aurrera. Eta eguenean, berriz, bakarriketa saioa eskainiko du Victor Amilibiak (gazteleraz), 19:30etik aurrera. Sarrerak 3 euro balio du eta Buenos Aires eta Kalaka tabernetan erosi daitezke.



Aratosteetako lehiaketetarako izen-ematea zabalik dago

Kuadrillen mozorro-lehiaketarako eta ondoen apaindutako taberna-lehiaketarako izen-emateak zabaldu ditu Eibarko Kulturak. Kuadrillentzat epea hilaren 24an amaituko da, eta tabernariak bi egun gehiago (26ra arte) izango dituzte lehiaketara apuntatzeko. Bi lehiaketen inguruko informazioa kontsultatzeko, zein izena emateko, Udalaren webgunera jo beharko da.

Kuadrillen desfilea lau talde mota aurkez daitezke. Helduen kuadrillek gutxienez 16 urtetik gorako 10 kide izan behar dituzte; umeen kuadrillek, gutxienez 10 lagun, eta haien hiru laurdenak 15 urte baino gutxiagokoak izan beharko dira; helduen kuadrilla txikiek 4-9 partaide bitartean eduki behar dituzte, erdiak baino gehiago 16 urtez gorakoak; eta haurren kuadrilla txikiek, 4-9 partaide, erdiak baino gehiago 15 urtetik beherakoak. Aurten Sin Juicio eta Ustekabe fanfarrek giroa dute ibilbidea, 12:30ean Untzagan hasita. Eta dekorazio onena duen taberna aukeratzeko lehiaketak lokalen sormena sarituko du.

Bestalde,...eta kitto! Euskara Elkartek Aratosteetarako antolatzen duen Play-back lehiaketa lekuz aldatu dute: aurten Untzagako karpan egingo da, Errebalen beharrean. Bestelako aldaketarik ez dute aurreikusi. Martxoaren 2an egingo da, domeka, 17:00etan hasita. LHko 5. eta 6. mailako ikasleek har dezakete lehiaketan parte. Taldeak, asko jota, sei lagunez osatuko dira eta talde bakoitzak abesti bakarraren koreografia eta dantza egingo du (abestiak euskaraz izango dira nahitaez). Abestia MP3 formatuan grabatuko da eta taldearen izena, ikasketxea, abestia eta parte-hartzaileen datuekin batera bidaliko da banaketa@etakitto.eus helbidera, otsailaren 24a baino lehen.



Ana Goitiaren umorezko bakarrizketa eguaztenean

Euskararen Hamabostaldian egitekoa zen bakarrizketa-saioa datorren astean egingo dela adierazi du Eibarren Akebaik: eguaztenean (otsailak 19) 18:30etik aurrera Ana Goitia arituko da Eibarko Klub Deportivoan, *Katana* izenburuko ikuskizunarekin. Aurreratu dutenez, “argi eta garbi egingo du berba”, eta musika, matxismoa, lodifobia, gurasotasuna eta beste hainbat gai landuko ditu. Kazetaria eta telebistako aurkezle euskalduna izateaz gain, umoregilea eta moda munduko profesionala ere bada.



Pagatzaren zine-forum feminista

Él me llamó Malala dokumentala eskainiko dute gaurko zine-forum feministan, 18:30etik aurrera Portaleko areto nagusian. Saioa Pagatzak antolatu eta Yanire Sagredok dinamizatuko du eta sarrera librea da. Dokumental honek Bakearen Nobel Saria jaso zuen Malala Yousafzai ekintzaile pakistandarraren istorioa kontatzen du. Nazio Batuen aurrean egindako hitzaldian, bere herrialdeko emakumeen zapalkuntzaren aurkako eta emakumeentzako hezkuntzaren aldeko deia egin zuen.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2			3	4		
				2			
	5	1	6	4			8
8	6			7	2		
	9						7
		2		6			1 9
7				9 8	5	4	
				1			
		8	2				6

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8


soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	9		3	8		1	2
				6		7	4
						5	
	3	6			2	9	
9							1
		2	6			3	4
		1					
3	2			4			
5	7		2	6			8

soluzioa



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			2			4	
				5	3		8
	7	3				9	
		6		4	2	9	
9		5	1		6	7	2
		4	7	9		1	
			9			8	7
	6		3	8			
		9			7		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		8	3					
				7		5	4	
7	4	5			2		3	
	1	6		2	3	4		
		3	4	6		9	5	
	3		7			2	8	4
	2	7		8				
						4	7	

soluzioa

Otsailak 14 - 20

BARIXAKUA 14

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak, euskaraz, begiraleen laguntzarekin. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Doan. Torrekua (anbulatorio pareko parkea).

ZINE-FORUM FEMINISTA

18:30 "El me llamo Malala". Dinamizatzailea: Yanire Sagredo. Doan. Portalea (areto nagusia).

DISKO-AURKEZPENA

18:30 "Pizpirri. Pozgarri eta pizgarri". Espetxealdian sortutako 10 kanta, euskal artisten ahotsetatik. Doan. Arrate Kultur Elkarte.

MUSIKA

19:00 Olatz Salvador, "Zainak eman" aurkezten. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 15

TAILERRA

11:00/14:00 Akuarela-tailerra, Santi Entrenaren eskutik. Materiala etxetik eraman. Doan. Ipuruako merkatu plaza.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. Astelena frontoia.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

MUSIKA

19:00 Kontzertu bikoitza, Slide eta Painapple taldeen eskutik. Doan. Ez Dok Zai-zoi.

DOMEKA 16

ZUHAITZ-LANDAKETA

09:30 Eibarko Baso Biziak-en eskutik. Abiapuntua: Unbe goikaldea.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinak Ipuruan. Ipurua kiroldegia.

MARTITZENA 18

NEGUKO AUKEREN AZOKA

10:00/20:00 Neguko Auken Azoka.
10:00/12:00 Euskeraz Primeran kanpainaren mahaia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Errebal Plaza eta hainbat denda.

DOKUMENTALA

19:30/20:15 "Momotxorroak", Altsasuko inauterien -inguruko dokumentala. Doan. Portalea.

EGUAZTENA 19

MENDI-IBILIAK

09:11 Ibilaldia, Ikasten elkartearekin: Donostia-Martutene. Trenaren irteera ordua, Estaziñotik.

NEGUKO AUKEREN AZOKA

10:00/20:00 Neguko Auken Azoka.
10:00/12:00 Euskeraz Primeran kanpainaren mahaia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Errebal Plaza eta hainbat denda.

AGURTZEN

18:00/20:00 Bizi-testametuaren inguruko informazioa, Ikasten elkartearen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

BAKARRIZKETA

18:30 Ana Goitiaren "Katana" umorezko bakarrizketa. Eibarren Akebairen eskutik. Doan. Eibarko Klub Deportiboa.

EGUENA 20

NEGUKO AUKEREN AZOKA

10:00/20:00 Neguko Auken Azoka.
10:00/12:00 Euskeraz Primeran kanpainaren mahaia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Errebal Plaza eta hainbat denda.

HITZALDIA

10:00/12:00 "Armas de Eibar y Gernika en la guerra civil china", Oier de la Kintanaren eskutik. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

KOKO-DANTZAK

19:00/22:00 Koko-dantzetan parte hartzeko entsegua (edonork har dezake parte) eta koko-jantziak banatzea. Errebal Plaza

ERAKUSKETAK

Otsailaren 16ra arte:

- "Ibilian jarraitzea"
ANTON HURTADOren pintura erakusketa. (Portalea).

Otsailaren 17tik 28ra:

- "HISTORIAURREA",
Mogel Isasiko DBH 1-2ko ikasleen artelanak. (Untzaga Gizarte Etxea).

Otsailaren 20tik 26ra:

- "Itsaspeko bihotzak",
GALTZAGORRI elkartearen erakusketa didaktikoa. (Andretxea).

Martxoaren 30era arte:

- "EIBARKO ITSAS ABENTURA". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Apirilaren 29ra arte:

- "BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK". (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

- **PAILAZOAK**
14an (BARIXAKUA)
19:00 Herriko Antzokia
Ostirala iritsi da!
Katxiporreta

ERMUA

- **ANTZERKIA**
14an (BARIXAKUA)
20:30 Ermua Antzokia
"Emakume baten borroka eta metamorfosia"
- **UMEENTZAKO ANTZERKIA**
15ean (ZAPATUA)
17:00 Ermua Antzokia
"Scrooge eta mamuak"

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15ean:** 19:45, 22:30
- **16an:** 20:00
- **17an:** 19:30

“El profesor de esgrima”
 DRAMA



2023 / Frantzia / 101'
 Zuzendaria: Vincent Pérez
 Aktoreak: Roschdy Zem,
 Doria Tiller, Guillaume Gallienne
XIX. mendea / Eskrima / Duelua

2 ARETOA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 19:30

“La red fantasma”
 DRAMA



2024 / Frantzia / 106'
 Zuzendaria: Jonathan Millet
 Aktoreak: Adam Bessa,
 Tawfeek Barhom, Julia Franz
Espioitza / Siriako gerra

ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **17an:** 19:30

“Mikaela”
 THRILLER



2025 / Espainia / 90'
 Zuzendaria: Drew Hancock
 Aktoreak: Antonio Resines, Natalia
 Azahara, Roger Casamajor
Akzioa / Lapurretak

ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00
- **16an:** 17:00

“Finnick. Un monstro”
 ANIMAZIOA



2022 / Errusia / 85'
 Zuzendaria: Denis Chernov
Abenturak / Komedia / Umeentzat

ONGI ETORRI

BERBETAN

Informazio+
www.etakitto.eus / 943200918

Teresa Ongietorriko partaidea da, Amañan.
 BERE ESPERIENTZIA KONTATU DIGUJ.

- ✓ Zergatik da garrantzitsua Ongietorri programan izena ematea? Zer eskaintzen dizu?
- ✓ ¿Por qué es importante participar en el programa Ongietorri? ¿Qué es lo que ofrece?
- ✓ Why is it so important to participate in the Ongietorri program? What can it offer me?
- ✓ Pourquoi est-il important de participer au programme Ongietorri? Qu'offre-t-il ?

✓ چم انرب هیف قکراشمل مهمل نم اذامل
 ؟ مدقئ اذامل

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **HELENA**, atzo 12 urte bete zenuazen eta! Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak, **ALEX!** Bixar 6 urte! Ondo pasa eta jarraitu oiñ arte bezala. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, **CARMEN IRINA** Arce Mendez, astelehenian 8 urte beteko dozuz eta. Aita, ama eta, batez be, zure anaixa Jesusen partez.



Zorionak, **MAREN!** Martitzenian 2 urtetxo. Eskerrik asko bi urte hauen-gattik, zu zeu oparirik onena. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **MAREN**, martitzenian urtetxua bete zenuan eta. Segi horren alaixa izaten. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **PAULA!** Eguaztenian 25 urte bete zenuazen eta! Musu haundi bat amatxo eta aitaixoren partez.



Zorionak, **ASIER** Agote, aurreko domekan 10 urte bete zenuazen eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AITATXONE**, hillaen 17xan 39 urte beteko dozuz eta. Maitte zaittuen Mateo, Vega eta amatxo Janireren partez.



Zorionak, **JON**, gure txapelduna! Zapatuan 9 urte egin zenuazelako. Amama, aitxitxa, guraso eta Claudiaren partez.



Zorionak, **MARKEL!** Astelehenian 7 urte bete zenuazen, mutil haundi!!! Musua famelixaren eta, batez be, Ibai eta Beñaten partez.



Zorionak, **OIER** (gaur 12 urte) eta **MARIJOSE** (domekan beteko dozuz). Ondo ondo ospatu! Musu haundi bana lagun eta famelixaren partez.

FUNEUSKADI
Funeraria

TANATORIO EBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO CREMATORIO ESCOILLAR

Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

**ARATOSTEETAKO
PLAY BACK
LEHIAKETA LEKUZ
ALDATUKO DA**

Errebalen egin beharrean
UNTZAGAKO KARPAN
egingo da (martxoak 2)

Izena emateko
**AZKEN EGUNA:
otsailak 24**

ONARRIARIK
HEMEN:



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Lokala edo garaje bikoitz itxia hartuko nuek alokairuan. 631092003.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta dendari bezala. 613391576.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 747444786.
- Neska eskaintzen nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 626444649.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Erizain-laguntzaile eta arreta sozio-sanitario tituluekin. 632938326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa), garbiketarak egiteko eta etxean laguntzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. Esperientzia. 632355103.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 637222318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. 617571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 611215176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602613594.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko, umeak zaintzeko eta tabernan jarduteko. 641910253.
- Neska eskaintzen da etxeko garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. 620757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 614104599.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 624545008.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 633365036.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta garbiketarak egiteko. Externa. 631907532.
- Eibarko neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaindu eta ikastolako etxeko lanak egiten laguntzeko. 617 804844. Elene.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. 632844780.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da adin txikiko menpekoa zaintzeko. Sozio-sanitario titulua edo antzekoarekin. Bidali curriculum-a: empleoeibar@gmail.com
- Kamarera/o behar da jatatxe batean. Zapatu arratsalde eta gau eta domeka osoa libre. 627778980. Feli.
- Durangoko hortz-klinika batek higienista behar du. Jardunaldia adosteko. Interesatuak bidali CVA: rrrhpersonal.clinicadental@gmail.com
- Odontologo orokorra behar da Mendaroko Hortz Klinika batean. Jardun partziala adosteko. Euskaraz jakitea eta odontopediatrian ezagutzak izatea baloratuko da. CV-a: odonto2025@gmail.com
- Ilea zaintzailea behar da Elgoibarren. Jardun erdirako edo osorako. 634261485.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.2. Eman

- Bainuontzirako aulki birakaria oparitzen da. 615761830.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko argentziak
610 532 922 www.theleceer.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@crystalerrijaocha.com
Tfnoa eta faxa: 943 203 993

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 30 - 1. eta beheko
Tfnoa: 943 12 13 87 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeez
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PLAGEN AURKA

PLAGANATURA
PLAGEN AURKARI ZERBITZUA
www.plaganatura.com
Tfnoa: 943 206 700
ELGOIBAR



943-206776



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktoroa


Odontologian Lizenziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adjua Aho Kirurgian,
Periodontozian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Esterikan Diplomaturua,
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Esterikan Diplomaturua,
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza,
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa,
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com